


ERREPORTAJEA MADALAKO GAZTETXEA BOTA ZUTENKO X.URTEURRERA • GEHIGARRIA EUSKALTEGIETAN
ARIGERA • KIROLA DOMEKAN, HILAREN 20AN, IZANGO DA ELGOIBARKO MENDI ITZULIA

BARRREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA 100eko maiatzaren 18a/VIII. urtea/363. zkia

10 urte
bota zutela



LYZAIDE

KAFETEGIA JATETXEA

Ospitale parean
Mendarozabal, z/g
Tel 943 75 51 44/75 61 66
MENDARO



- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Banketeak
- Enpresentzako j atorduak
- Urtebetetzeak
- Despedidak

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*





Errespetoa botoentzat

Gauzak oso argi geratu ziren domekan. Harnarretik zortzik botoa eman zuten, eta beraz, sekula baino erretratu garbiagoa erakusten digute hauteskondeek. Nire ustez, agerian dago gehiengoa burujabetzaren aldekoa dela, biolentziaren kontrakoa, elkanizketaren bitartez bakea eta akordioa lortu nahi dituela.

Politikoez gogoeta sakona agindu dute. Ezin, hala ere, gauza askorik espero. Txarrak izanda ere, bakoitzak bereari eusten diola, horrek indartsuago egingo balu bezala. Beti dago aitzakiaren bat kontsolatzeko, norberak bere burua engainatzeko,

baina ez dezatela uste hain nabarmen geratu denaz ez konturatzeko adina baldanak garenik.

CA

CD

O

O

N

O

Pentsatzeko momentua da baita komunikabideentzat ere. Azken hilabeteetakoa, lotsagabeena ere gorri-gorri jartzeko modukoa izan da. Madriletik zuzendutako telebista, irrati eta egunkariak bat egin dute abertzaleen kontra. Irainka ibili dira, gezurretan, zatiketa eta gorrotoa piztu nahian. Artilleria mediatikoak ez du, oster, bere helburua lortu, eta horrek asko esaten du herri honen alde. Frankismoaren 40 urteak ez ziren alferrik pasa, eta gaur, orduan bezala, Madriletik datozen bertsio ofizialak onartzeko prest ez gaude.

Batzuek behin eta berriz esaten dute botoa ematerakoan beldurra egon dela, beldurriak izan garela euskaldunak. Nire ustez, herri honek ausardia erakutsi du. Ausardia eta demaseko heldutasuna. Ezin gehiago eskatu.

Aitor Zabaleta



E=mc²

Einsteinek XX. mendearen hasieran plazaratutako erlatibitatearen teorian, argiaren abiaduran doan gorputz batek edukiko duen energia kalkulatu zuen. Baina ez dut fisika kuantikoaz hitz egingo sasoi honetan eguzkitik datorkigun argi eta energia kantitate izugarriaz baizik. Egunak luzatzen doaz, eguzki orduak gero eta gehiago dira, eta gure gorputzak igartzen du eta berpizten da. Energiak betetzen da gure barrena, gure umorea alaiagoa da, eguna beste era batean hasten dugu. Argia energia da eta energia bizitza. Beraz, argia bizitza da.

Zent urdina, eta zero horretan dagoen gauza bakarra, izar bat. Denontzako izarra, denontzako bizia, denontzako energia. Onuragarria den energia, beroa. Iluntasunetik irtetzen gara eta gauzak diren bezala ikusten ditugu.

Izugarria da 150 milioi km³ tara dagoen energia masa batek egin dezakeen guztia.

Jokin Martinez

ErreportAJea

motz motz

gehigarria

kiRolAk 20

aGenda 24

Okerrak zuzentien

Pasa den astelehenean, maiatzaren 14an, kaleratu genuen hauteskundeetako emaitzen orrian IU-EB alderdiaren 98ko botoen batuketa egiterakoan 206 boto ipini beharrean 792 boto lortu zituela ipini genuen. Hori dela-eta, testuan alderdiak boto gehiago lortu zituela ipini bagenuen ere, grafikoarekin ez zetorren bat. Barkatu okerrak.

IIAUTFSKUNDEAK

Kanpaina gogorra benetan! Eta ondorioak?

Niri buntrazten zaizkidanen artean ondorengo hauek:

1. Euskadiko hiritarrok gure instituzioak baloratzen badakigula.

2. PPK eta PSEk, kanpainen eurek biek gobernua osatzea planteatu dutenean bi ondorio sortarazi dituztela:

a) Nazionalistek bakarrik osatutako gobernuak ez daukala zergatik baztertzaila izan; bestela, beraiena ere halakotzat jo beharko genukeelako.

b) Halako aukera bat aurkeztea normaltzat hartzean, gizarte heldua garela.

3. Bi galtzaile egon direla: ETA eta PP. ETAk, saiatu arren, ez du Mayor Oreja lehendakari izatea lortu. PPK obsesio bat du aspaldian, nazionalista guztiak ETArekin nahastea, eta erantzuna argia eta garbia izan da.

4. Irabazlea, PNV-EA koalizioa, eta Ezker Batuarena, pozik egotekoa. ETAREN su-etenaren ondoren, EHk berreskuratu zituen botoak eta gehiago, bereganatu ditu orain EAJ-EA koalizioak eta esan beharra dago boto horien konfidantza lortzeak, hainbat komando atxilotzeak baino kalte gehiago egin diola ETARI.

5. Hogeita hiru urtetan nazionalisten eta konstituzionalisten arteko orekak berdintsu jarraitzen duela. Horregatik, ezin dela proiekturik inposatu. PP alde batera utzi eta PSEk EAJren bake bidean zerbait ona ere egon daitekeela onartu behar du; eta EAJk jaso dituen boto horien emaileei, Arabako instituzioetan, nazionalisten presentzia gehitu eta Nafarroa gerturatzeko, PSEkin akordioetara ailegatzea komeni dela adierazten saiatu beharko dela.

J. B.

NAN 8.900.467

Urruzunoren begi ezkutua



Argia itzaltzea bezain erraza balitzait gauez ezer idatzi gabe lo egitea, goxo egingo nuke lo gauero-gauero, baina azkenaldian halako behar batek bultzatzen nau gaueko ordu txikiak arte itzarririk, ohean etzanda,

boligrafoa astintzera. Halako uneetan Eduardo Gleanoren hitzak datozkit burura azentu uruguaiok "quizá nosotros somos las palabras que euentan lo que somos", eta hitzon esanguran pentsatze soilak ni ere naizen hori idatzita uztera bultzatzen nau, nire energia zeregin horretan agortzera. Bihar berandu eta nekatuta esnatuko naiz, baina bozgorailuek "Zea Mays"-eko kantariaren ahotsa jaurtikitzen dutenean, "ni neu ere energia banaiz, lurrean idatzirik geldituko naiz", litezkeen damu itzal bakanak ezabatuko dira nire kontzientziatik. Pertsiana igotzean, argi izpiek logela bete eta nigan gainez eginen dutelako. Egunak bere onena eman ostean gaua izango dut aiduru. Eta koaderno honetako orri txuriak. Idatzirik geldituko naiz. Zuk irakur nazazun.

Unai Villena

ASTEKARIA

BaRRen

Nalarron enparantza, 2

20870 ELGOISAR

+ 943 74 41 12

Publizitateak:

ir. 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

barren@topagunea.com

Heibideinformatikoa:

www.topagunea.eur/Vbarren

ARGITARATZAILER

Eigotea Izarra

gr EIGOIARVO naltA

LaourrrnIA Elgrabarku Udala ZUZEICAPUT: Eli Aizpuru KAZETARIAN Irati Agirreazaldegi. Asier Orbea PUEUZITA/E4 Andoitz Agirregomezkorta MAKETATZALEA Bea Ansola AtumiliantAzox Amaia Frodrigaz Gcrierana Jun Peli Unguen eta M. Angeles Orluoste. KOUSSOFULMULEAll Amaia Lariz, UnalArgarate, Eguakifie AranbeM, Lorea Perez de Alberjiz. Jokirthilartnez, Allor Zabaleta, Leire Urkidj, Olga Unzilla, Muntse Arregi, Juantle GonDStiz4, Iker Maguregi, Jon Garrubaga, Jon Eugi,Alnhoa Andonegi. Kokoe K.E. eta UrTUZunc LT.. AZALEKO EULDIR GolzOn Garate lueautzem Gerid Koep. E. TIRADA 4.000 ale LEGE GORDAILUA 88.1.038/92ISSN 11391855

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aboldiak diraz lagandutako aklizkaria.



ZSZ kutxa
esker

INDANOBAT

GOITI
GRUPO GAN0841



SILDIRIX



• Etxeko balkoitik tren geltokia ikusten duen emakume batek honako galdera luzatu digu: **Ba al dakizue zertarako jarri duten hain antena handia estazioan?** Azken aldian telefono mobiletarako antenek sortzen dituzten kalteak direla eta kezkatuta nago eta hortarako al den jakin nahi nuke".

Eusko Trenera deitu dugu eta hau izan da erantzuna: "Eusko Treneko antena da. Irrati bidez trenekin komunikatzeko erabiltzen dugu antena hori. Koberturaren arabera jartzen ditugu eta Elgoibarren kobertura ba omen dagoenez, bertan jartzeko erabakia hartu dugu".



KEXAK

• Herrian **preserbatibo-makina kanpoan duen farmaziako langile batek** honako kexa azaldu nahi du **BARREN**en: "**Joan den asteburuan preserbatibo makina hondatu zuten** eta ez zaigu bidezkoa iruditzen jarrera horiek onartzea. Asteburuetan preserbatiboak erosi nahi dituztenentzat aukera bat da eta makina izorratuz gero, ez dago erabiltzerik". - Esan digu Yudego famaziakoak.



• Meliton inguruan ibiltzen den herritar bat honako kexarekin etorri da guregana: **Melitongo zubia amaitu eta Lerungo industrialdera doan tartean**, ez dago inolako barandarik edo zuhaiskarik. Zati bat libre dagoenez, tarte bat dago eta umeak bertatik pasatzeko oso modu arriskutsuan dago. Beraz, zuhaitzekin edo barandekin zati hori babestea da nire eskaera".



TXALOAK

• **BARREN**ekook egindako lana herrian ondo hartzen duzuela ikusi dugu, edo hori jakinarazi digu irakurle batek erredakzioko buzoian utzitako idatzi labur honekin: "**Zorionak BARREN**eko langileei **hauteskunde gauean egin zuten ahaleginarengatik. Informazio orria eskertzekoa da**",

Barreak, Birrak eta Barreak



©KOKOE 2001 144

O urte Eta gerila

Malatzaren tla asteazken bertan hat gehiago izan zen hemitar askorentzat Egon zen, ordea, egun borl modu berezlan gogoratu eta ospatu menk tran ere, arten egun horretan bete lir OD 10 urte Madalako Gaztetxea bota zuteneta. HMnbat gazteren ametsak hauts biturni dren, balna hautsak harretu eta orduat gazte halen lanak eman du zeresank Etem hartat hona beste bl Mkal okupatu aluzte eta maidna hat eidnlza antelalu ere. Garkean gazte nekeednon mite hauetako asterla labtr bezak: krzea jase nahl han dugu. 1988ke abuzban Madalako Gaztetxea okupatu zutenetit gatr arteke ltaddea latartzen salatu gara.

1984 an gazte batzuk bilerak egiten hasi ziren eta batzar hauetan gazteen kezka azaltzen zituzten. Bilera hauetatik abiatuta, Gaztete bat sortzeko ideia jarri zen martxan. "84an forja zahar bat okupatu zaben, haina oso egun gutxitan, Guardia Zibilek amenazak ziala-ta segitxuan laga zaben. Gero Udalian HBn bitxartez Gaztete aldeko mozio bat aurkeztu zaben eta jaixetarako lokal bat okupauko zan abisua eman jakon Udalar plenuan", esan digute Gazte Asanbladakoek.


"Lehenengo urteko ekitaldirik inportantiena lazpiki irratixakin batera antolautako heroinian aurkako eztabaidia izan zan"

Hitza bete eta 1986ko abuztuaren 18an, Madalako parkeko haur eskoiaren beheko solairua okupatu zuten. "Jaixetan Gaztete zabaldu zan, hasieran barrarik gabe funtzionatzen zaban: ping-pong mahaixa, musika, rebistak, gaztiak egoteko Gabonetatik aurrera astebukaeretan barria zabaltzen hasi zan, eta horrek jende gehixao ekarri zaban".

Madalako Gazteteke lehen urtean ekitaldi ugari antolatu omen zituzten. Aipagarrienak Riañora, urtegiaren aurkako protesta ekitaldietara, egindako txangoa, Barrikadaren kontzertua eta Debarroko gazteek egindako mobilizazioak izan ziren. Bestalde, Gaztete sortu ziren Emakume Gazteen Asanblada eta Talde Antimilitarista. "Dudarik gabe, garai hartan Zazpiki irratixakin batera antolatutako ekitaldirik inportantiena Herriko Antzokixan ein genduan heroinian aurkako eztabaida izan zan".

88ko ufalak


1987an Udal Korporazioa aldatu zen, baina Gaztetearekiko harremanak bere horretan jarraitu zuen. "Hasieran alkatia "munipekin" etortzen zan kontzertuetan argixa kentzera, baina gero besterik gabe kontzertuen erdixan argixa mozten zaben. Soluziva Madalako farola



X. u ,eurrene/Ko OSPAKIZUNAK

1991 ko gertakariak gogoratzeko hainbat ekitaide izan dira herrian Gazte Asanbladak antolatuta, eta guk horietako batzuk bildu ditugu hemen.

Maiatzaren 9an, Gaztetxea bota zutenetik 10 urte pasa ziren egunean bertan gaztetxearen omenez aureskua dantzatu zuten Madalan eta ondoren, gaur egun iturria dagoen lekuan plaka bat ipini zuten. Gero, azken urteotako Gaztetxearen ibilbidea laburbiltzen duen bideoa izan zen ikusgai Gaztekean.



Eztabaida eta bilerarik ere ez da falta izan. **Gaztetxearen lehena, oraina eta geroa** izan zituzten mintzagai lehendabizi ostegunean, hilaren 10ean, eta larunbatean, maiatzaren 12an, Gipuzkoako Gazte Asanbladetakoa kideak bildu ziren Elgoibarren eta kalejira ere egin zuten herriko kaleetan.



Baina guztia ez da hizketa izan eta bestelako ekitaldiek ospakizun kutsua eman diote **X. urteurren honi**.

Antzerkia, olerkiak, graliak eta musika batzen dituen "Big lie tour" ikuskizunak eta "Non Demontre" eta "Zein?" musika taldeen doinuek ere izan zuten lekua.

batetik argixa hartzia izan zan".

88ko gertakariak gogoratzeko eskatu diegunean gobernadoreak agindutako drogen aurkako sarekada eta uztailearen 19ko ufalak aipatu dizkigute. "Gaztetxian lau paretak bakarrik geratu zian, eta Udalak segurotik jaso zaban dirua ez zaban eman. Orduan, Gaztetxia akondizionatzeko lanetan hasi ginan". Bestalde, lehen aldiz antolatatu zituzten jai altematiboak Zazpikik eta Gaztetxeak elkarlanean.

Madalako gaztetxea bota zutenekoa

1990eko apirilaren 23an Gobernu Batzordeak, arau subsidiarioetan oinarrituz, Gaztetxea botatzeko erabakia hartu zuen. Gaztetxeak erabaki horren aurka azaldu arren ez zieten kasurik egin. 1991ko maiatzaren 9an bota zuten Madalako Gaztetxea. "Hiru eguneko okupazivan ostian, maiatzaren bederatzixan goizeko 6:30ean bota zaben Gaztetxia. Kriston amorruakin eta inpotenziakin bizi izan genduan eguna".

Okupazioa

Gaztetxe zaharraren hautsetatik, herriko hainbat gaztek, bilgunea edukitzeko beste leku baten sorrerari ekin zioten. Gazteek ezezik herriko elkarte eta norbanakoek bat egin zuten Gaztetxearen aldeko ekimenarekin, baina hori ez zen nonbait nahikoa arrazoi izan herriko agintarientzat eta berriz ere okupazioaren bidetik jarraitu zuten. 1993ko San Bartolome jaien atarian Plaza Txikiko lokal batean sartu ziren baina Ertzainek eta Udaltzainek bertatik bota zituzten negar eragiteko gasa erabiliz.

3 urte beranduago, abenduaren 28an, Alkortako etxea okupatu zuten eta bertan sortu zen Gakoa (Gaztetxearen Aldeko Kolektiboa). Baina Gaztetxe honek ere ez zuen luzaroan iraun, bi hilabete eskasen ondoren burdinezko lamina batekin itxi zuten Ertzainek gauzez bertan sartuta.

10 urte bete dira aurtan, maiatzaren 9 hartan Gaztetxetik kanporatu zituztenetik. Baina orduko ideiek zutik diraute gaur egungo gazteetan. Gazte Asanbladakoen hitzetan oraindik asko dago egiteko, eta herriko gazteei deia luzatu nahi diete ostiralero arratsaldeko 19:00etan Gaztetxean biltzen direla esanez. Eta non dago orain Gaztetxea? Duela lau urte, udan, Jarve lantoki zaharra txukundu zuten, eta hura da orain gazteen bilgunea.

**"ihru eguneko
okupazivan ostian,
maiatzaren bederatzixan
goizeko 6:30ean bota
zaben Gartetxian**

HASIERAKO URTEETATIK GAUR EGUN ARTE



HISTORIA (1984-2001)

'19847

Gazteen kezken in_guruko lehen biterak.
Forja zaharraren okupazioa.

19867

Uztaila 80 _gaztek Udal Plenoan eman zuten jaietarako lokal bat okupatuko zuten abisua.

Abuztuak 18 Madalako parkeko haur eskolaren beheko solairuaren okupazioa.

Ekitaldi aipagarriak: Riañora, urte_giaren aurkako protesta ekitaldietara, e_gindako txan_goa, Barrikadaren kontzertua, Debarroko _gazteek _gaztetxeak eskatuz e_gindako mobilizazioak eta Zazpiki irratiarekin batera antolatutako heroinaren aurkako eztabaida.

19_8_77

Udal Korporazio aldaketa eta ar_gi mozketak Gazteixean.
Drogen aurkako sarekada.

Uztailak 19 Ufalek Gaztetxea hondatu zuten eta beste ekintzak apalduz, konponketek hartu zuten prota_gonismoa.

Abuztua: San Bartolomeetan lehen jai alternatiboak antolatu zituzten Zapiki irratiarekin elkarlanean.

19902

Apirilak 23 Gaztetxea botatzeko erabakia hartu zuen Udaleko Gobernu Batzordeak.

Maiatzak 9 Madalako Gaztetxea bota zuten goizeko 6:30ean.

1993

Gaztetxeko lo_gotipoa aukeratu zuten.

Gaztetxearen aldeko ekimena bultzatzeko agiria sinatu zuten hainbat herritarrek eta elkartek.

Abuztuak 20 Plaza Txikiko lokalaren okupazioa.

Abuztuak 23 Plaza Txikiko lokaletik indarrez atera zituzten eta hainbat gazte atxilotu zituzten.

19_9_62

Abenduak 28 Alkortako etxearen okupazioa

1997)


Alkortako lokala itxi zuten ertzainek.

Uztailak 9 Gazte Asanbladak eta Udaleko Gazte Batzordeak hitzarmena sinatu zuten. Gaztetxea _gaur e_gun dagoen lekura pasa zen.

Aurtengo udan betekodira 4 urte Jarve lante_gira sartu zirenetik.



Maiatzaren 13ko hauteskundeetako emaitzak ikusi ostean EUSKAL HERRIKO EGOERA POLITIKOA ALDATUKO AL DA?



CEFERINA DIEZ


61 urte, etxekoandrea

Lehenago antzera segiduko dogu, ez da ezer ere aidauko. Hoberako balitz nahixao genduke, baina resultauak ikusitxa, egoeria ez dala kanbixauko pentsatzen dot.

YOLI AVILA

27 urte, zaintzailea

Aspalditik gaude egoera hobetzeko zain, baina hauteskunderen inguruan beste bi atentatu egon dira eta horrek zer pentsatua eman digu. Hobe litzateke egoera hobetzea, baina zaila dela uste dut.



JABIER ARRIOLA

61 urte, mekanikoa

Nik ez det uste. Berriz ere lehenago txakurrak daude, eta txakurrak kanbixatzen ez dian arte zaunka igual eingo dabe, hori ez dao aldatzerikan.

JAVIER PUYADENA

42 urte, elektrohigatzailea

Bai, onerako aldatuko dala uste dot. Emaitza hauek EHri zer pentsatua emango diote, eta ondorioz horrek aldaketia ekarri dezake. Abertzaliok indar haundixa ein dezakegu danok bateratuta.



VICTORIANO AVILA

64 urte, jubilatua

Nik jakin banekien hauteskundeak irabazi dituenak irabaziko zituela. Baina egoerak ez dakit hobera egingo duen. Nahiko ongi gaude, baina pakean biziko bagina hobeto geundeke.

NOELIA SUAREZ

25 urte, komertziala

Espero dot onerako aldatzia, baina zer pasauko dan ezin da jakin. Dana dala, aldatzekotan onera eingo dabala uste dot, ze emaitzak onak izan dia Euskal Herrixantzako.



5,25^{11,4}

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantisko 49-1 Tel: 943 741 189

Mandiola Egurrak S.L.


Domingo Arrizabaiaga

SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 2 943 74 12 56 - inmobila} 609 53 23 83



Autoak Madalatik sartu eta Melitongo zubitik aterako dira

Joan den maiatzaren 16an aldatu zuten auto zirkulazioaren norabidea Pedro MUGuruzan. Beraz, hemendik aurrera gidariak ibilbide berrira ohitu beharko dira, eta Melitongo zubitik sartu beharrean Madalatik barrena joango dira Pedro Muguruzara.



Norabide aldaketa herriari beste ineera hat emateko egin da. Pasa den eguaztenean, maiatzaren 16an hasi dren autoak direkzio herrian gidatzen.

Gaztetxe parean itxoingo diote hemendik aurrera. Melitonen hartzen zutenek, berriz, geltokia Ifiigez de Karkizanora joateko pasabidearen alboan izango dutela jakitea komeni da.

Norabide aldaketak hasieran zalantzak eragingo zituela ikusita, udaltzainek asteazkenean gidariei informazioa eman zieten. Honetaz gain, seinale bidez ere jakinaraziko dute zirkulazioan egin duten aldaketa. Jakin dugunez herriari beste irteera bat emateko egin da norabide aldaketa hau.

Autobus geltokiak

Norabide aldaketa dela-eta lurreko marrak margotu dituzte, batez ere, aparkamentuen markak.

Bestalde, autobus zerbitzuan ere izango da aldaketarik. Orain arte

autobusa San Lazaro egoitzaren aldamenean hartzen zutenek

"Karraskatu eta irahazi" kanpainaren etapa berri hat jarri du martxan Txankakuak

Txankakua Merkataria eta Zerbitzu Elkartek "Karraskatu eta irahazi" kanpainaren etapa berri bat jarri du martxan. Erosketak Txankakuako dendetan egiten dituztenek sariak eskuratzeko aukera izango dute. Guztira 300.000 pezeta banatuko dituzte saritan. Txarteletan sariren bat topatuz gero, Txankakuako edozein dendatan jaso ahal izango du. Kanpainaren etapa berri hau ekainaren 2ra arte luzatuko da.

Internet bidez ikasketak osatzeko proiektua jarri da martxan IMHn

Ikasleek, eskolatik kanpo, edukiak eskuratu edo zalantzak argitu ahal izango dituzte

EIgoibarko Makina Erremintaren Institutuak (IMH) aurrez aurre emandako prestakuntza osatzeko internet bidezko sistema birtuala erabiliko du Lanbide Heziketan eta Heziketa zikloetan. Honela, ikasleak nahi duenean edukiak eskura izango ditu, eta era berean irakaslearekin zalantzak argitzeko aukera ere edukiko du. Teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailak irakaskuntza klasikoari gehituz, ikasleen prestakuntza erraztea da proiektu honen helburua.

Kalitatea

Kalitatezko hezkuntza eskaintzea eta etengabe hobetzen joatea dira IMHren asmo nagusienak. Horretarako, 2000-2001 ikasturtean eskolak euskaraz jasotzeko aukera eman zitzaizen ikasleei. Orain, berriz, klase orduetatik kanpo



Lanbide Heziketan eta Heziketa Zikloetan eramango da aurrera proiektua. Argazkian, proiektuak arduradunak eta Josean Egaña. LLIHka zuzendaria

sistema birtuala erabiltzeko moduan izango dira, eta horrek gure ikasleei kalitatezko heziketa ematea ahalbidetuko digu.

Giro polita eta jendearen partaidetza handia izan dira Galiziarren jaietako protagonistak

Elgoibarren bizi diren galiziarrek festa giroan izan dira azken bi asteburuetan.

Jendearen partaidetza oso handia izan da, eta galiziarrek beraien folklorea eta gastronomia ezagutzera emanez sortu duten giroa ezin hobe. Sarrausko

gaita taldeak galiziako doinuak ekarri zituen gure artera eta Euskal Herriko dantzekin bat egin zuten, Haritz dantzari taldekoekin, hain zuzen ere. Bestalde, olagarroa, enpanada, Ribeiro edo Albaritio ardoz bustita jateko aukera izan zen.



Lapurreta izth da asteburuan Estazio tabernan

Azken aldian herriko tabernak lapurren helburu bihurtzen ari direla dirudi, Santa Klarako Aldapa tabernan egin zuten lapurreta lehenengo eta asteburu honetan Estazio tabernan sartu dira. Tabernan inor ez zegoela aprobetxatuz, igande goizaldean barrura sartu eta dirua, bi musika aparatu eta Ioteriako hainbat txartel, edari botilak, tabakoa eta jatekoa ere eraman zituzten.

Eigoihar, Bergara eta Elorrioko euskaltzaleak Errioxan izan dira hodegak bisitatzeko

Elgoibarko Izarrak antolatuta Errioxara irteera egin zuten joan den maiatzaren 12an, zapatuan. Iaz ardo ikastaroan ibilitako hainbat lagun eta herriko beste ardo zale batzuk izan ziren Errioxan, guztira 18 elgoibartar. Bergarako eta Elorrioko beste batzuekin batera bi bodega bisitatzeko eta ardoa nola egiten den ikusteko aukera izan zuten, baita ardoa probatzeko ere. Ondoren bazkaldu eta Biasteri bisitatu, poteoa egin zuten eta iluntzeko 21:00ak aldera Elgoibarren ziren bueltan.



Azkue

Lehen jaunartzea egin zuten domekan, hilaren 13an, 80 umek

Joan den igandea, maiatzak 13, hauteskunde eguna izateaz gain, jaunartzeen eguna ere izan zen Elgoibarren. Eguraldia lagun 80 umek giro politean ospatu zuten eguna. Bi taldetan banatuta, lehen aldiz hartu zuten jauna San Bartolome Parrokian gurasoen eta senideen begiradapean. Elizkizunaren ondoren taldeko argazkia atera eta bakoitza bere familiako eta lagunekin joan zen ospakizuna egitera.

Beti sarean, be arlislucian

KONEXIOEN GARRANTZIA

Egia da 56 kb/segunduko modem batekin konektatuz gero, ez dagoela arrisku handirik. Hala ere, gero eta jende gehiagok erabiltzen ditu RDSI, ADSL edo "tarifa plana"-dun kablea bezalakoak 24 orduan konektaturik egoteko. Baina **sarean zenhat eta denhora gehiago egon** orduan eta **arrisku gehiago dugu uhaker"-en programak gure datuak lortzen saiatzeko.**

'Cortafuegos deritzon softwareak gure ordenagailua interneteko konexiotik isolatuko du informazioa filtratuz, ate irekiak blokeatuz eta "ActiveX" kontrolekin edo "JavaScript"-eko rutinekin programak geldiaraziz.

SEGURTASUN PROGRAMAK DOAN NON?

"Esafe Desktop 2.2" programa birusen eskanerra eta web orrien eta posta elektronikoaren filtroa da. Honek, web orriak, posta elektroniko bidez jasotakoak eta

gure sisteman sartzen diren disko flexibleak kontrolpean edukiko ditu koarentena pasa arte. Gauzak moteltzen dituen arren, lortzen dugun lasaitasunak merezi du. **Doan lor dezakegu www.aks.com orrian.**

Beste segurtasun sistema batzuk "Norton"-en **"Internet Security 2000"** eta "Zonelabs"-en **"Zone Alarm 2.1"** dira. Azken hau **dohainik** lortuko dugu **www.zonelabs.com** orrian.

Proxy Winproxy 3' serbidoreko softwareak abantaila bat du: sare bateko ordenagailuen banda zabaleko konexioa elkarbanatzeko programa.

ENPRESA BABESLEA

Softlen

Analisis & Programazioa

Antonio Arrillaga, 1 • Tel. 943 748 195

ZAHARRAK BERRI

EUSKALDUN ZAHARRAK EUSKALDUN BERRIENGA HURRERATZEKO KANPAINA

HELBURUA

An rigera proiektuak gaur aurkeztuko duen kanpaina honen helburua, euskaldun zaharrak euskara ikasleen ikaste eta integrazio prozesuan inplikatzeko da. Horretarako, ahalik eta euskaldun zahar gehien lortu nahi dituzte. Izan ere, orain arte euskara ikasleak nahiko ahaztuta izan ditugulakoan gaucle".-Esan digu Arigera proiektuko teknikariak. "Oso harreman eta komunikazio gutxi egon da euskaldun zaharron eta euskara ikasleen artean. Ikasleen eta euskaltegien esku laga dugu ardura guztia eta euskaldun zaharroi laguntzea dagokigula uste dugu".

Beraz, euskara ikasleei laguntzeko prest dauden euskaldun zaharrak lortu nahi dituzte. Euskara ikasleak eta euskaldun zaharrak batuko dituen zubia egiteko prest dauden

euskaldun zaharrak lortzea da kanpaina honen helburua.

NOLA LAGUN DEZAKETE EUSKALDUN ZAHARR EK?

Bi modu izango dira, batez ere, euskara ikasleei laguntzeko:

a. Ikasleekin euskaraz hitz egiteko aukera eskainiz:

tertuliak, paseoak, astean behin orduheteko saioak egin.

b. Ikasleak motibatuta mantentzeko jardueretan parte hartuz: irteerak, jaiak, ja-torduak...

Ikasleek euskara erabiltzea eta motihatuta edukitzea izango dira euskaldun zaha-

rren bi zereginik garrantzitsuenak. Ezagutzaz euskaltegiak arduratuko direnez, lan nagusiak ikasten dutena erabiltzeko moduak prestatzea eta ikasleak gustura mantentzea izango dira. Bi helburu hauek betetzeko hainbat egitasmo eta jarduerak prestatuko dituzte eta nor-



Gaur, ostirala, ZAHARRAK BERRI KANPA1NAREN aurkezpena izango da arratsaldeko 19:30ean Madalako parkean

berak gustukoan dituenetan parte hartzeko aukera izango da.

KANPA1NAREN IRAUPENA

Gaur, maiatzaren 18an hasiko da eta hilabeteko iraupena izango du. Amaitzen denean, izena eman duten guztiak bilduko dira lanerako ildoak eta metodologia clefinitzeko.

IZENA EMATEKO LEKUAK

AEK euskaltegia
943 74 13 32, Plaza Txikian
Udal Euskaltegia
943 74 27 31, Nafarroa Plazan
Udal Euskara Zerbitzua
943 74 43 66, Nafarroa Plazan
Elgaibarko Izarra
943 74 16 26, Ubitarte kalea

Eli Gutierrez Goi moiloko ikosleo

Eli Gutierrez ileapaintzailea da eta aldi berean, ume bat zaintzen egiten du lan. Bere lana dela eta, euskara ikasteko beharrik ez duela esan digu, erdaraz ere berdin moldatuko ornen litzateke-eta. Duela zazpi urte hasi zen euskara ikasten baina gustura ez zegoela-eta, laga egin zuen. Orain lau urte daramatza euskaltegian.



I Asko kostatu al zaizu euskara ikastea? Aclitzekin-eta ohitzea egin zait zailena. Bestela, gauza gu ztiak bezala, denborarekin ikasi daitekeela uste dut. Saiatu egin behar da. Nik eskolan ikasitako euskara eta entzundakoa ulertzeko adina besterik ez nekien eta, denborarekin, euskaraz hitz egiten hasi naiz.

Kalean euskaraz hitz egiten al duzu?

Euskaltegian hasi eta lehen bi uneetan asko hitz egiten nuen euskaraz. Azken aldi honetan, ordea, lanpetuta nahil eta tarte txikiagoa, eskaintzen diot euskarari. Lanetik irtendakoan bi ordu egiten ditut euskaltegian eta estankam egin naizela iruditzen zait.

Beharrezkoa al da euskaldunen inplikazioa euskara ikasteko prozesuan? Nik uste dut haietz. Egunero-egunero euskaltegian bi orduz euskara ikasten aritzen gara, baina euskaltegitik irten eta nonnalean, nahiz eta euskara ikasten ari garela jakin gurekin beti erdaraz egiten dute. Guri ere, lotsarengatik, asko kostatzen zaigu, euskaraz hitz egitera pasatzeko saltoa ematea.

I Zein da lotsari aurre egiteko modurik onena? Niri euskaraz hitz egitea gustatzen zait, baina baita kostatu ere. Guk euskaldunekin euskaraz hitz eginez gero, hauek gure ahalegina eskertu beharko lukete.

Mikel Oribe Behe moiloko ikosleo

Mikel Oribek urtebete darama euskaltegian. Beretzat garrantzitsua da eman duen pausoa. Ez da inguru euskaldun batean mugitu eta ondorioz, zailagoa egiten zaio ikasketa prozesua. Hala ere, lehen baino giro euskaldunagoa duela dio eta euskara ikastera animatu da. "Umeengatik batik bat, gero beralekin euskaraz hitz egiteko".

Etxetik edo euskaltegitik kanpo, euskaraz dakien norbaiten laguntzarik ba al duzu ikasteko? Ez, tamalez ez dut inor. Nire ingurua ez da oso euskalduna eta alde horretatik, zailagoa egiten zait ikastea.

I Zergatik ari zara euskara ikasten? Batetik haurrei lagundu ahal izateko, beraiengatik egin nahi dut esfortzu hau. Bestalde, euskalduna naiz eta garrantzitsua iruditzen zait euskaraz hitz egiten jakitea.

Gaur "Zaharrak berri" kanpaina aurkeztuko da. Horrelako kanpainak beharrezkoak iruditzen al zalzkizu?

Bai, beharrezkoak dira eta oso positiboak gainera. Etskaldun zaharrek euskaraz ez dakitenei laguntzea eta erakusten ahalegintzea garrantzitsua da. Aldi berean, "Zaharrak berri" kanpainak euskaraz jakin arren, hitz egiten ez dutenei euskaraz egiteko balioko die. Euskaldun zaharrak kontzientziatzeko ere balioko du.

Euskara i kasteko laguntza eskatzeko prest al zaude? Bai horixe. Orain laguntza eske ari naiz. Horregatik iruditzen zait garrantzitsua euskaldunak inplikatzeta.



Ireide Agirre

Euskoldun zahorro

24 urteko elgotibartarra da Ireide eta "Zaharrak berri", gaur aurkeztu den kanpainan, euskara ikasten ari direnei laguntza ernateko prest azaldu diren euskaldunen artean dago. Euskaldun zaharra da baina euskahegian EGA ateratzeko euskara lantzen ibilitakoa. Ezagutzen ditu tkasleek dituzten kezkek eta kalean hitz egiteko behar duten bultzada hori eman nahi die.

Zergatik a721du zar-a. prest "Zaharrak berri" kanpainan laguntzeko? Gazte jendeak bultzada bat behar duela iruditzen zait. Guk, euskara ez dakitenekin erdarara jotzeko joera daukagu. Horrela, laguntza honekin, beraiek ere guregana etortzeko erreferentzia bat izango dutela uste dut.



Eskaintzen duzun laguntzarekin, zer jasotzea espero duzu? Ez naiz honetan hasi ezer jasotzeko asmoarekin. Beraiek konforme egotea, besterik ez dut espero. Nire aldetik ahal dudana guztia ematen ahaleginduko naiz, besterik gabe. Gero, agian beraientzat ez da nahikoa izango. Bestalde, euskara ikastea nahi badute, zerbait jarri beharko dute beraien aldetik ere.

Zer emateko prest zaude? Hori kanpaina martxan edo aurrera doan heinean ikusi beharko da eta nire denbora librearen arabera.

Beharrezkoa iruditzen al zaizu kanpaina hau Elgoibarren? Nik uste dut beharrezkoa baino gehiago jendea euskaraz hitz egitera bultzatzeko aurrerapausoa dela. Asko beldur dira eta ez dakite norengana jo euskaraz egiteko eta pertsona batzuk laguntzeko prest daucielako jakinez gero, segurtasun batekin joango dira beraiegana, bekturrak alcie batera lagata.

LEHIAKETA

Zortzi esaldi hauetan, 4 zuzen daude eta beste 4 okerrak dira. Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, okerrak zein diren asmatu eta zuzen idatzi behar dituzu. Okerrak zuzendu ostean, moztu papera rnarra etenetik eta bidali honako helbidera ekainaren 8a baino lehen: Arigera proiektua. Ubitarte 4, behea 20870 Elgoibar. Euskara ikasleok euskaltegietan ere entrega dezakezue.

GALDERAK

1. Ni kanpoan egon naizen bitartean, deitu al du inork?
 2. Hotz bat daukail
 3. Mila eta ehun? Beste denda horretan merkeagoa da.
 4. Zer moduz dago Mirenen arreba?
 5. Ainara kaka egin zen.
 6. Haserre dagoela begitandu zait.
 7. Entzun ze galderak egin dizkiote.
- B. Giltzarik gabe irten naiz.

ERANTZUNAK

1.
2.
3.
4.

izen abizenak
Telefonoo

rtecin
Parke Vlarcken cluzueno

zakekokuko dugu\

Euskararen ikaskuntza prozesuan ourrero egiteko euskoldunen loguntzo behorrezkoo o da?



BEGOÑA LOPEZ

Bai, haina normalean ez da hori pasatzen. Nik dendan bost bezero ditut beti euskaraz egiten didatenak, eta asko laguntzen dicitate. Euskaldunek euskaraz hitz egingo balute guk ikasteko aukera gehiago izango genuke.



JUAN LUIS INES

Bai, horrelako kanpainak ondo claudie. Ni Bartelonakoa naiz eta bi urte bakarrik dararnatzat euskara ikasten. Lotsa ematen du jendearen aurrean hitz egiteak baina gaizki esandakoak zuzentzeko ere garrantzitsua da.



VANESA NOGALES

Bai, garrantzitsua da euskaraz dakitenek guk egindako akatsak zuzentzea. Bi hilabete besterik ez dira euskaltegian hasi nintzela, eta oso garrantzitsua iruditzen zait euskaldun zaharrek ikasten ari garenoi laguntzea.



NATI GARCIA

Ez dakit behanezkoa den ala ez, baina oso ondo iniditzen zait. Euskaltegitik kanpo euskaraz hitz egin behar da. Zenbat eta gehiago aritu, lotsa errazago galtzen da. Nik horrelako laguntza gustura hartuko nuke.

erdoldunok izondoko EUSKAIDUNIM

Antonio Gómez familia erdaldunean lazi da. Duela urte batzuk ordea, Algoibarko baserri batean, Etxeberrizabal baserrian egon zen morroi lanetan eta han sortu zitzaion euskara ikasteko gogoia: "Behiak jaisten eta baserriko lanak egiten nituenean jende euskaldunez inguratuta egoten nintzen baina nirekin beti erdaraz hitz egiten zuten. Nik erdaraz hitz egiteko zituzten zailtasunak ikusten nituen eta lotsa ematen zidan euskaraz ez jakiteak. **Han bururatu** zitzaidan lehen aldiz euskara ikastea", esan digu Antoniok. **Baserritarren Laguntza** baliagarria izan duela aipatu digu baina



Antonio Gómez

horretaz gain, euskaltegian ere hasi zen, "baserrian apurtxo bat ikasi nuen eta gero, 4 urtetan ibili naiz euskaltegian. Orain, ordea, lana dela-eta ez daukat astirik euskaltegian jarraitzeko". Euskaltegian jarraitzen ez badu ere, ez du euskara alde batera laga. Gaur egun, enpresa bat dauka, "bi langile ditut eta biak euskaldunak. Beraiekin euskaraz egiten dut eta bezeroekin ere bai". Antoniori ez omen zaio zaila egin euskara ikastea, "dena da zaila ikasi arte baina gustatzen bazaizu eta gustura aritzen bazara, ez da zaila".

AURREKO "OKERRAK ZUZENTZEN" LEHIAKETAKO ERANTZUNAK

ESALDI OKERRAK

1. Egun bertan erabakiko dut nora joan
3. Jon, laga ikusi erretratuak
5. Merkatu Plazatik Maltzagararte joan nintzen...
6. Beste jertsea ez naiz probatu

ERANTZUN ZUZENAK

1. Egunean bertan erabakiko dut nora joan
3. Jon laga ikusten erretratuak
5. Merkatu Plazatik Maltzagaraino joan nintzen...
6. Beste jertsea ez dut probatu



IRABAZLEA

TXARO ETXEBERRIA da

Saria: Bi pertsonarentzat afaria Toletxe tabernan

Ikastolak Batxilergoko ikasgai teknologikoetarako akordioa sinatu du IIVHrekin


Ikastolak, ikasketak eguneratzeko eta bere ikasleei prestakuntza aberatsa eskaintzeko asmoz, hitzarmen bat sinatu du Makina Erremintaren Institutuarekin (IMH). Itun honen bidez, Ikastolan Batxilergoko ardatz teknologikoa aukeratzen duten ikasleek IMHko instalazioak erabiliko dituzte praktiketarako, eta ikasgai praktikoen arduradunak IMHk prestatutako irakasleak izango dira.

Eusko Legebiltzarra ezagutzen izan ziren Ikastolako DBH 1 eko ikasleak

Apirilaren 24an, Elgoibarko Ikastolako DBHko ikasleak Eusko Legebiltzarrean izan ziren bisitan. Legebiltzarraren funtzionamendua azaldu zieten bertan. Ondoren Gasteiz hiria bisitatu zuten, eta Mendizorrotzan bazkaldu ostean, berriz ere Elgoibarrera bueltan etorri ziren.



Eskolarteko Bertso Txapelketako Elgoibarko kanporaketan 400 lagunek hartu zuten parte



Bertso giroa nagusitu zen joan den ostiral arratsaldean Ikastolan. Izan ere, Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketako kanporaketa jokatu zen. Azkoitiatik, Azpeitiatik, Zarauztik, Zumaiatik, Sorluzetik eta Mendarotik etorritako gaztetxoak elgoibartarrekin bat eginda bertsoak idazten jardun ziren ordubetez, guztira 400 lagun inguruk hartu zuten parte. Ondoren bat-batekoen txanda iritsi zen: Txikien mailan 4 taldek hartu zuten parte eta handiengan, berriz, 14 eta 18 urte arteko 8 gaztek kantatu zuten Jon Maia bertsolariaren aginduetara. Bat-bateko finala eta bertso paperetako sari banaketa datorren ekainaren lean izango dira Beasainen.

Igeriketa jardunaldiak 54 haur eta gaztetxo bildu zituen Hiraldegiko igerilekuan

Igeriketa praktikatzea ez da horren arrunta gaztetxoaren artean. Hala ere, herrian bada kirol honetarako kemena duenik, eta hori erakusteko igeriketa jardunaldiak egin zituzten Kiroldegian. Lehenengo, 39 benjaminek 25 metroko proba mistoa bete zuten eta gero, erreiboka aritu ziren. Alebinek eta infantilek 50 metrotan neurtu zituzten indarrak 25 metro krolean eta beste horrenbeste, bizkarrez igeri eginez. Hauek waterpoloko partiduak jokatzu bukatu zuten jardunaldia.



Sailkapena

BENJAMINAK

1. Itsaso Egaña
2. Julen Conde
3. Angel Lopez
4. Mireia Iriondo

ALEBINAK

- Neskak** Miriam Arosa
Mutilak Aitor Arosa

INFANTILAK

- Neskak** Ane Odria
Mutilak Kimetz Iturrino

XUXE

euskarazko zuzentzaile ortografikoa


*xu/xemi & 144 (Alkirazko
zuzentzaile
ortografikoko 6{,, 0 A 1\1 . 1*

- Word, Acces, PowerPoint, Front Page eta Outlook programetarako baliagarria.
- Euskaltzaindiaren azken erabakien arabera eguneratua.
- 10- instalatzeko erraza.
- Mac eta PC-rako (Pc-Office 97 eta Office 2000/ Mac-Office 98).

Maiatzaren 20tik aurrera EGuNKARIArekin

Nola jaso dezaket Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografikoa?

- Maiatzaren 20ko Euskaldunon Egunkariarekin, lehen kupoia eta kupoiak itsasteko orria banatuko dira. 6 kupoi izango dira guztira, eta egunero jasoko dituzu Egunkariarekin, maiatzaren 27a arte.
- Kupoez beteriko orria kioskoan aurkeztuta, Xuxen zuzentzaile ortografikoa jaso ahal izango duzu maiatzaren 27tik aurrera.
- Kupoiren baten faltan geldituz gero, maiatzaren 29ko eta 30eko Egunkarian ordezkoko kupoiak banatuko ditugu.



Babes eak:

111 kutxa

zuri esker

EGILEAK:



Hinpi t#ZEQI



Euskaraz gero eta xuxenago.

E:unkaria

Areto fulbolean jubenil mailan jokatu nahi dutenentzat deialdia egin dute

Elgoibar F.S. Areto Futboleko taldeak 1984-85ean jaiotakoei deialdia zabaldu die euren jubenil taldera edo taldeetara sartzeko asmoarekin. Aurkezten direnen arabera, talde bat edo gehiago osatzeko asmoa dute hurrengo denboraldian egingo den txapelketarako. Int eresatuei kirol j antzi arekin Kiroldegira agertzea eskatzen zaie maiatzaren 21ean, astelehenean, arratsaldeko 20:30ean.

Domekan, maiatzaren 20an, zikloturisten irteera

Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, maiatzaren 20an, 18. zikloturisten irteera izango da. Plaza Handitik irtengo dira goizeko 8:30ean, eta honakoa izango da egingo duten ibilbidea: Elgoibar, Deba, Mutriku, Berriatu, Markina, Bolibar, Ziortza, Munitibar, Bizkaiako begiratokia, Urrutzua, Zugastietia, Gernika, Kortezubi, Ereño, Lekeitio eta Elgoibar. Guztira 120 km. dira. Nahi duen edonork har de zake parte.

lilaurren autoestiman kirolak duen garrantziari 13111112 hiiz egingo dute asteazkenean, maiatzaren 23an, Kultur Etxean

Luis Mari Zulaikak, psikologian eta hezkuntza fisikoan adituak, hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean datorren maiatzaren 23an, asteazkenean, arratsaldeko 19:00etan. Hitzaldia gurasoei zuzenduta dago eta "Kirolaren eragina haurren autoestiman" da bere izenburua. Beste gai batzuen artean, haurtzaroen kirol jarduerak dakartzan onurak azalduko dira. Ekitaldia Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak eta Udal Kirol Patronatuak antolatu dute "Kirola euskaraz" egitasmoaren barruan.

Elgoibarko Mendi Itzulia domekan, hilaren 20an, egingo da

Izena aurrez edo irteeran bertan eman daiteke



Goizeko 6:30ean emango zaio irteera Morkaikoren egoitzatik mendi itzuliari.

Aurten ere, urtero bezala, Morkaiko Mendizale Elkartek Elgoibarko Mendi Itzulia antolatu du. Mendi itzulia egiten den 9. urtea izango da hau eta domekan, maiatzaren 20an, goizeko 6:30ean emango zaio irteera. Parte hartu nahi dutenek aurrez eman dezakete izena Morkaikok Errosario kalean duen egoitzan edo bertara deituz (tel: 943 74 02 97>) eta bestela, egunean bertan ere bai. Inskripzioa egiteko orduan 1.000 pta. ordaindu behar dira. Antolaitzaileek adierazi digutenez, bi

ibilbide egongo dira: bata luzea, 45 km. ingurukoa eta motza, bestea, 38 km-koa, gutxi gorabehera. Ibilbide luzea aukeratzen dutenek taldean egin beharko dute.

Itzuha amaitu ostean, bazkaria egingo da Merkatu Plazako azken solairuan

Itzulia amaitu ondoren, Morkaiko Mendizale Elkarteko kideek bazkaria emango diete mendizaleei Merkatu

Plazako azken solairuan. Antolatzaileen esanetan, bazkari honekin "urbait jan eta aldi berean, ibilbideari buruzko pasadizoak komentatzea da asmoa, ahalik eta giro hobereana sortzeko nahiarekin batera".


Ana Etxantz eta Nuria RevueRa elgoibartarrek dominak lortu dituzte Gipuzkoako Atletismo Txapelketan

"Atletieo San Sebastidn" taldeko Ana Etxanizek eta Nuria Revueltak hainbat domina lortu zituzten larunbatean, maiatzaren 12an, Anoetan (Donostian) jokaturako Gipuzkoako Atletismo Txapelketaren bigarren saioan. Anak 1.000 metroko lasterketan hartu zuen parte eta baita zilarrezko domina eskuratu ere. Nuria berriz, jubenil mailako 100 eta 200 metroko lasterketan atera zen. Bietan brontzezko domina lortu zuen. Zorionak bie!

idgo Larizek "Trofeo San Isidro" txirrindulari proba irabazi du Bizkaian

Txirrindulari elgoibartarrak "Ciclos Iturriaga" taldearekin irabazi duen lehen lasterketa da

Pasa den astean, Iñigo Lariz Weekend Bearnais txirrindulari proba frantziarrean garailea izan zela esan genizuen. Orduan, Iñigok bertako proba bat irabaztea zuela helburu aipatu zigun, orain arte bigarren postuekin konformatu behar izan zuelako. Pasa den larunbatean ordea, "Cielos Iturriaga" taldearekin, proba bat irabaztea lortu zuen. "Trofeo San Isidro" lasterketa Karrantzan, Bizkaian, jokatu zen



Proba irabazteaz gain, mendiko lehenaren saria ere jaso zuen Iñigok

hilaren 12an, larunbatean. Guztira 63 km. egin zituzten txirrindulariek. Zirkuito batean 10 bira eman ondoren, Ubal mendatea igo zuten, 8 kilometroko aldapa gogorra. Iñigok esan digunez, "30 km. falta zirela ihes egindako taldiakin bat eitxia lortu naban. Gero, igoeran atakau naban eta bakarrik heldu nintzan metaraino". Lehen postua lortzeaz gain, mendiko lehenaren saria ere eskuratu zuen Iñign Larizek.

Pedrusko taldea preferente mailara igo daiteke Soraluzearen aurka larunbatean irabaziz gero

Pasa den igandean, hilaren 13an, liderrari 1 eta 0 irabazi zion Mintxetan

Pedrusko, 1. erregionaleko futbol taldeak, preferente mailara igotzeko aukera du. Partidu bakarra falta da liga amaitzeko eta lehen hiru postuetako taldeak 60 puntutara berdintuta daude (Ordizia, Pedrusko eta Ilintxa, hirugarren). Pedruskok liderraren aurka, Ilintxa taldearen aurka jokatu zuen maiatzaren 13an eta 1 eta 0 irabazi zuen, bigarren denboraldian Aitorrek sartutako gol bati esker. Asteburuan, larunbatean, arratsaldeko 17:00etan Soraluze taldearen aurka jokatuko du Esozia futbol zelaian. Bestalde, Ordizia eta Ilintxa neurtuko dira. Gure taldeak irabaziz gero eta beste



Azken partidua Aitorrek sartutako gol bati esker irabazi zuen Pedrusko taldeak.

partidua berdintuta amaitzen bada, Pedrusko preferente mailara igoko da.

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 4- Iffixaurrondo 0 (Prel.)
Mondragon 0- Elgoibar 2 (1. erreg.)
Pedrusko 1- Elgoibar 0 (1. erreg.)
Elgoibar 4- Aldapetarrak 1 (Ottar. jub.)
Tolosa 4- Elgoibar (ohor. inf.)
Elgoibar 0- Gurebwkoa 2 (neskak)

Eskubaloia

Pagoaga Elg. 16- Aloña Mendi 12 (Kad. neskak)
Unceta Elg. 23- Aloña Mendi B 19 (Jub. neskak)
Tecnifuelle 19- Umietako 19 (Kad. mut.)
Zarauz 17- Tecnomeca 18 (Kad. mul.)
Gaur Elg. 21- IJsurbil 23 (Kad. mut.)
Aloña Mendi 20- IMS Elg. 24 (Sen. neskak)

Pitota

Lagunak Txapelketa

J. Mugerza 8- 0. Txurruka 18 (Inf.)
M. Portu 1B- A. Gumez 7 (Inf.)
I. Txurruka 18- I. Ugalde 8 (Inf.)
J. Conde 11- J. Agirrebeña 18 (Benj.)
H. Arribillaga 18- J. Guenetxea 9 (Benj.)
E. Salegi 18- I. Zubiaurre 6 (Aleb.)
G. Unanmunzaga 3- G. Zulaika 18 (Aleb.)
M. Arrizabalaga 18- U. Larrañaga 8 (Inf.)
K. Arrizabalaga 15- G. Zulaika 18 (Aleb.)
E. Ulazia 18- B. Arrieta 11 (Kad.)
A. Iriondo 18- S. Egia 9 (Kad.)

Idarraga kafeak 4. saria

HAUNDIKO jokalarierregularrena 00/01
JOKALARIA PUNTUAK

1- Saiz...	38
2- Zulaika	34
3- Izagirre	32
4- Laskibar	30
5- Gurrutxaga	27
6- Lander	25
7- Alkorta	22
8- Garo	22
9- Loren	21
10- Portu	18
11- Mugika	16
12- Joseha	12
13- Oskar	7
14- Igor	7
15- Poto	7
16- Etxaburu	6
17- Longarte	4

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 19
15:30 Ostadar- Elgoibar (14eskak)
16:00 Elgoibar- Mundarro (Pref.)
17:00 Soraluze- Pedrusko (1. erreg.)
17:45 Elgoibar- Urola (1. erreg.)
18:00 Beasain- Elgoibar (Ohor. jub.)
Igandea, 20
16:30 Elgoibar- Lagun Onak (Ohor. int.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Ostirala, 18
22:15 Zur ta Lur- Promociones Sukia (A.F.)
Larunbata, 19
09:15 Aix- River Revources
16:00 IMH Elgoibar- Pulpo (Sen. mut.)
17:30 IMS. Elgoibar- Zarauz (Sen. neskak)
Igandea, 19
10:15 Barrenkale-Open Club
11:00 S.A- Elur F.S
11:45 Bar Tupi Azpi- Kon 8 vasta
12:00 La Kolina- kashima Brewer's

Saskibaloia, Kiroldegian

18:30 Elgoibar S.T.- Kostkas

Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Durango inguruko amortiguazio enpresa batek 3 soklatzaik behar ditu. ERREF: 51484/0.

Debagoieneko enpresa baterako C++ programatzailea behar da. ERREF: 49673/2.

Urola Kostako enpresa baterako matritzegintzako edo irokelgintzako 3 langile behar dira. ERREF: 49904/4.

Donostialdeko enpresa baterako mekanikoa behar da. ERREF: 50769/2.

Arabaka errioxako enpresok batek 5 sorosle behar ditu. ERREF: 50859/6.

Donostialdeko enpresa batek hondartzekako toldoen arduraduna behar du. ERREF: 51343/1.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Urola, Kostarako **kamareroa** behar du. ERREF: 51463/1.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Zumaiako jatefexeko **Licifermko barrarako kamareroa** behar du. ERREF: 51464/1.

Urola Kostako enpresok baterako kalitatearen kontrolerako **inginerua** behar da. ERREF: 51498/1.

Berriatuako jatefexeko baterako sukaldaria behar da. ERREF: 51525/1.

Donostialdeko enpresa baterako komertziala behar da. ERREF: 51623/2.

Urola Erdiko enpresa baterako antalakuntzako teknikaria behar da. ERREF: 51650/2.

Donostiako enpresa baterako interneleko **teknikaria** behar da. ERREF: 51764/3.

Gipuzkoako enpresa baterako **komertziala** behar da. ERREF: 51893/2.

Urola Erdiko enpresa baterako **ponpa motorrak egiteko langilea** behar da. ERREF: 52059/4.

Zumaiako enpresa baterako **anlxoak garbitzeko 5 pertsona** behar dira. Erref: 52365/1.

Donostialdeko enpresa baterako **edukien arduraduna** behar da. ERREF: 52487/0.

Eskainka hau intere_sgarria gertatzen bazaizu eta lortunotsi izanez gero, gogoan hariu eskairskaren erreferentzio Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo tLangail Elgoibarren dituen zentru laguntzatile hauek batera deitu: Elgoiuaroko Institutua (Alberto Iturricastillo) **943 74 80 19** edo 1MH (Ekaitz Mendizabal) **943 74 41 32** telefonoro.

Lana

ESKAERA

*Emakumeak bere burua eskaintzen du eleak edo bulegoak garbitzeko. w 943 74 22 01.

ESKAINTZA

• Elgoibarko enpresa batetarako makina Erramintarako montadore-prestatzailea behar da. Esperientziactuna. **13' 979 50 96 99**.

*Mutila behar da tabeman orduka lan egiteko. Beste lankide batzuekin txandakcs. Aste egunetan, arratsaldez eta asteburuetan ere lan egin beharko luke, mm **943 74 28 97**.

• Sigmako Eulogio Estarta etkariean, "Sigmako soziedadada" bezala ezagutzen dena, konserjea behar da. mr 943 74 00 30.

*Sukaldaria behar da jatelean lan egiteko. Tr 943 74 05 80.

*Asteburuetarako kamarera behar da. Esperientzia opur bai izatea komeni da. Orduetaz hitz egingo genuke. rw 943 74 **37 71/ 656 75 83 24**.

Pintorea behar da. Ez da esperientzarik behar. xr **606 33 11 19/ 20** edo **943 74 15 52**.

• Eixeke lanak egiteko eta umea zaintzeko pertsona behar da. mr 669 89 56 03.

Salerosketak

• Opel frontera Spor-a salzen dut. 3 ate. 2.2 TDI. 2000 urlean erosi. 13.500 km. Aire egokitua, airbagu. Berri-berria. 679 50 96 99

• Scooter Yamaho Slider EW 50 motoa salgai. Erabili gabe dago. Tr **646 65 04 80**

* "Inesca" karroa salgai, arkoia eta "Inaka" dauka. 13 943 74 **23 17**.

4 Peugeot 306 aulosa salgai. 5-16. 157 zatcli. 95ekoa da eta 63.000 km. ditu. Atarma, ispilu elektrikoak, liontak eta larruzko jarlekuak ditu. Beti garajejan egon da. Ikusteko modukaa, berri-berria. rat **667 71 12 09/ 943 74 06 33**.

♦ Baserriko esne galdara salgai. 430 litroko kapazidadea du. sz **943 74 22 50**. Ramon.

*3 gelako kanping-denda salgai. Arratsaideko 8elatik aurrera deitu. tm 943 74 23 17.

Bestelakoak

• Pertsona bat behar da pisua konpartitzeko, tr **646 51 24 91**.

*Arantzazuko pakearen aldeko azken marixan betarritakoa galdu nuen. Han izandako elgoibartarren batek aurkitu badu, deitu mesedez. mr 943 70 05 55. Cori.

• Muleta bat galdu nuen maiatzaren Sean, larunbatean. mr **646 69 49 44**. Yoli.

• Urrezko eraztun bat aurkitu dugu San Frankisko kalean. Hiru perla txiki ditu. BARRENEN lako dugu.

Lokalak

• Taberna alokatzen da Elgoibarren. Tr **943 74 13 63**.

1r 200 m²ko lokala salgai Santa Ana kalean. Argi naturata, bulegoa, bi komun eta aparkalekua ditu. Tailerrera-ko, bulegorako edo soziedaderaka egokia Prezio ona. sr **616 28 96 73**.

Etxebizitzak

• Gela bat alokatuko nuke pisu konpartituan. Eibarren edo Elgoibarren. Urte osorako. tr 650 OI 10 95. Roberto,

*Apartamentua alokatzen da Torresdedjan udako hilabeteerako. Igerifekua du. rzz **617 84 33 78**.

*Eixebizitza salgai Alcoceberren. 3 sotairutakoa. Itsasoaren ondo-ondoan. (1. ilaran) **17 943 19 10 71/649 05 38 05**

Efex bdkl eta polit baten bila bazabiltza, hau da zure aukera: Herri erdian atiko argitsua salgai. Guztiz berritua. mr **943 74 40 85**.

♦ Pisua hartuko genuke alakairuan. Senarematze gazteak semearekin. Premiazkoa da. Sara. mr 943 74 00 33/ 679 69 36 71.

Garajeak

♦ ESS solairutako garojea salgai Erdigunean. mm **607 74 30 68**.

• Garoje ilxia salgai Arregitorre kalean. Bi auto sartzeko lekua dago. Aukera ezin hobea. Tr 943 74 00 09.

Agurrak



• Zorionak **Maria**, hilaren 20an 9 urte beteko dituzulako eta baita domekan jaunarizea egin zenuelako ere. Farnifiako-en partez.



• Zorionak **Ander Uroini**, San Isidro ogunean urtea bete zuelako. Etxekoan, aitxitxa eta amamaren eta osaba Jose Javierren partez.

• Zorionak **Larn Uraini**, hilaren 15ean 13 urte bete zituelako. Gurasoen, ahizpa Ane-ren eta **DBH Teko**en partez.



• Zorionak **Juditxo** hurrengo astelehenean zure urtiak dialako. Larunbatian ospatuko dogu, ezta? Lagunak.



• Zorionak **Jo!** Berondu izan arren, segurul Oso ondo pasau genduan zapatuan. Hurrengo urtian berriz, bale! Lagunak.



• Zorionak **Asierri**, maiatzaren 14an 8 urte bete zituelako. Familiakoan eta bereziki, Aitorren partez.



• Zorionak **Iker Mancebori**, maiatzaren 17an 5 urte bete zituelako. Gurasoen efa bereziki, antaia Aitorren eia Abelen partez.



• Zorionak **Janireri**, hilaren 1 9an 9 urte befeko dituelako. Osaba-izeben eta lehengusu Jon eta Ibonen partez.



• Zorionak **Morcos**, hifaren 20an urte handi bat beteko ditzulako. Anaia Asier, osaba-izeba, atfon-amona eta gurasoen partez.

• Zorionak **Unai**, bihar 3 urte beteko dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Aitor, Jon, Iiigo eta Irartiren partez.

OHARRA:

Merkatu ixikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.



• **Jose Mari eta ifziar**, hilaren 1 9an ezkonduko den bikoteari, zorionok! Sallobenteko koadrila, amoma, guraso eta anai-arreben partez. On-do pasa eguna!



• Zorionak **Janire Gorri**, gaur urfeak bete dituelako. Ikastolako 4. mailakoan eta bereziki, Pitxu eta Mendiren partez.

• Zorionak **Joshua Uzundiori**, hilaren 15ean 10 urte befe zituelako. 4. mailakoan eta bereziki, Josu A. eta Mikel A.ren partez.

• Zorionak **Ainhoa Mendibili**, gaur, hilak 18, 13 urte bete ditueiako. Ondo prestatu bazkaricet **DBH I** ekoen partez eta bereziki, zuk clakizun botzuen partez.

• Zorionak **Eiderri**, hilaren 13an 13 urte bete zituelako. Fulanitoren eta zure lagunen partez.

• Zorionak **Sonia Mendozari**, bihar, hilak 19, 15 urte beieko dituelako. Muxu handi bat eta ondo pasa eguna, Ea hobefo porfatzen zaren, eeh!

• Zorionak **Andoni Gabilondori**, astelehenean 14 urte beteko difuelako. Oso ondo pasa dezazula zure egunean, Muxu handi-handi bat etxekoan partez eta ea asteburuan beste gol bai sartzen duzun, animo!

• Zorionak **Nerea** Rodriguezi moitzaren 11n urteak bete zituelako. Musu handi bat zure Iagun Itsasoren partez.

• Zorionak **Ainhoari**, gaur, maiatzak 18, urteak bete difuelako. Guraso, osaba, izeba, amona eta Etereztki, ahizpa Maddiren partez.

• Zorionak **Elixabet**, maiatzaren 8an urteak bete zituelako. Ikastolako LH a. mailakoan partez.

agendd

Farmazia

EGUNEZ

- 19 Bidasolo
20 Bidasolo
21 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
22 Fernandez
23 Yudego
24 Zabaleta
25 Etxeberria
(Errosario kaian)

GAUEZ

- Bidasolo
Bidasolo
Etxeberria
Fernandez
Yudego
Zabaleta
Etxeberria

HELBIDEAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze
Tel. 943 75 16 38

FERNANDEZ, Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel. 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

okindegia

20 igandea Idarra

18 BARIXAKUA

19:30 ZAHARRAK BERRI
KANPAINAREN AURKEZPENA
Antolatzailea: Arigera proiektua
Madalan

22:15 ZINEA
"Antes que anochezca"

19 ZAPATUA

10:00-13:00 ARKU TIRAKETA
Eskola Kirola
Kiroldegian

19:30-22:15 ZINEA
"Antes que anochezca"

20 DOMEKIA

19:30-22:15 ZINEA
"Antes que anochezca"

21 ASTELEHENA

22:15 ZINEA
"Antes que anochezca"

22 MARTITZENA

19:00 ATE IREKIEN EGUNA
IMHn

19:30 MUSIKA ESKOLAKO
IKASTURTE BUKAERAKO
SAIOA
Herriko Antzokian

23 EGUAZTENA

19:01 HITZALDIA
Gaia: Kirolaren eragina haunren
autoestiman
Antolatzaileak: Udal Kirol Patronatua
eta Euskara Batzordea
Hizlaria: Luis Mari Zulaika
Kultur Etxean

19:30 MUSIKA ESKOLAKO
IKASTURTE BUKAERAKO
SAIOA
Herriko Antzokian

24 EGUENA

19:30 MUSIKA ESKOLAKO
IKASTURTE BUKAERAKO
SAIOA
Herriko Antzokian
21:30 ZINE KLUBA
"Ni uno menos"
Antolatzaileak: Ongarri Zine Kluba eta
Herriko ikastetxeak

25 BARIXAKUA

19:30 MUSIKA ESKOLAKO
IKASTURTE BUKAERAKO
SAIOA
Herriko Antzokian

22:00 ZINE FORUMA

"Heredaras la tierra"
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea
Kultur Etxean

ZINE
kluba



uNi uno menos

Zuzendaria: Zhang Timou

Antzezleak: Wei Minzhi, Zhang Huike, Tian Zhenda, Gao Enman
eta Sun Zhimei

Nekazal giroko eskola batean maisu den Gaok hilabetez eskola utzi beharko du gaixo dagoen bere ama zaintzeko. Herriko alkateak Wei kontratatuko du bere postua betetzeko. Gaok ghiago ordainduko dion promesa egiten dio Weiri, baldin eta bera itzultzean haur guztiak eskolan badaude. Weik inork alde egin ez dezan zaindari lanetan pasako du eguna, baina Zhang ikasle azkar eta bihurriak hirira ihes egingo du lan bila. Weik atzetik jarraituko dio berriz eskolara bueltan ekartzeko.

IRTEERAK

Bizkaiara bira

Jubilatuen Biltokiak Bizkaiara bira antolatu du datorren maiatzaren 30erako. Plaza Handitik goizeko 8:00etan irten eta Bizkaiako hainbat txoko ezagutu ostean, Zornotzako Autzagane jatetxean egingo dute bazkaria. Irteeran parte hartu nahi dutenek 2.500 pta. ordaindu beharko dituzte, eta informazio gehiago jaso nahi duenak Jubilatuen Biltokian izango du txangoaren berri.

ERAKUSKETAK

"Eskuz" eskulan taldea

Eskuz elkarteak ikasleek egindako lanak ikusgai jarriko ditu. Erakusketan, berritutako eta birziklatutako altzariak ikusteko aukera izango da. Lanak maiatzaren 25etik ekainaren 3ra bitartean egongo dira jendaurrean Kultur Etxean arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

MUSIKA

Bi kontzertutarako deia egin du "Gaztelupeko Hotsak" musika zingiluak. Biak Sorraluzeko Gaztelupe tabernan izango dira. Joseba Irazoki gitarrajolearen "Onddo" laukotea gaur, maiatzak 18, ostirala, gaueko 23:00etan arituko da. Bestalde, Mikel Artiedaren hirukoak datorren maiatzaren 24an, ostegunean, eskainiko du kontzertua gaueko 22:00etan Gaztelupen bertan.

JARDUNALDIAK

Ate irekien eguna

Datorren asteartean, hilaren 22an, ate irekien eguna izango da IMHn. Heziketa zikloei buruzko informazioa emango diete interesatuei, eta irakasleek ikastetxea erakutsiko diete. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da jardunaldia Erraminta Makinaren erremintaren Institutuan.

HITZALDIAK

Gurasoentzako hitzaldia Mendaron

Mendaroko Arno Guraso Elkarteak "Heziketa autonomian eta norbere arduran" izenburupean gurasoentzako hitzaldi-eztabaidak antolatu ditu. Lehenengo azalpen teorikoa egingo dute eta ondoren gurasoek beraien kezka azaltzeko aukera izango dute. Hitzaldiak maiatzaren 23an eta ekainaren 6an izango dira arratsaldeko 18:30ean Mendaroko Kultur Etxean.

DANTZA

Haritz Dantzari Taldea Deban

Haritz Euskal Dantzari Taldekoak ekitaldiz ekitaldi dabilta azken aldian. Galiziarren jaietan parte hartu ondoren, Debako "Gure Kai" dantza taldeak antolatutako jaialdian izango dira, gaur, maiatzak 18, ostirala, Debako Gure Kai eta Eibarko kezka taldeekin batera. Haritzekoek Arratiako jotak dantzatuko dituzte. Jaialdia Debako kiroldegian izango da gaielp 22:30ean hasita.

"iIntes que anochezca"

Zapatua: 19:30-22:15

Domeka: 19:30-22:15

Astelehena: 22:15

"Ni uno menos"

Eguena: 21:30

IB. R. Un, a a

"El espinazo del diablo"

Barixakua: 22:15

Zapatua: 17:00-19:30-22:15

Domeka: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: *19:30-*22:15

IB. R. Rialt

"Hornbres de honor"

Barixakua: 19:30-22:15

Zapatua: 17:00-19:45-22:30

Domeka: 17:00-19:45-22:30

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: *19:30-*22:15.

ERG vedad

"En quē piensan las mujeres"

Zapatua: 17:00-19:30-22:30

Domeka: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: *19:30

Martitzena: 19:30-22:15

"Filame "

E wena: 20:00

"Descubriendo a Forrester"

Zapatua: 19:30-22:30

Domeka: 16:30-19:30-22:30

Astelehena: 19:30-22:30

*Ikuslewen eguna

klii' \e!, er

ke, iit II,II,II



"Antes que anochezca"

Zuzendaria: Julian Schnabel

Antzezleak: Javier Bardem, Andrea Di Stefano, Olatz Lopez Garmendia, Sean Penn eta Johnny Deep

Reinaldo Arenas idazleak (Bardem) Castoren Gobernuaren zirikatu zuen. Homosexuala zela publikoki esan eta horrek zein bere lanek kartzelara eramane zuten. Ondorioz, bere jaioteritik, Cubatik ihes egitera eta Nueva Yorken exiliatzera behartuta ikusi zuen bere buntia. Gaixotasun larri batek jota bere buruaz beste egin zuen 1960an. Filmak bere bizitza ezagutzeko aukra emango digu: haurtzarotik hasi eta heldutasunera iritsi arte.



A

ste honetako erretratu zaharra 1949koa da eta Bittor Arrietak laga digu. "Elgoibar Txiki" futbol taldea da eta Eibarko Ipurua futbol zelaian atera zuten argazkia. "Elgoibar Txiki" Elgoibarko bigarren futbol taldea zen, lehena "Elgoibar Haundi" deitzen zen-eta. Hala ere, oso famatua eta estimatua izan zen herrian. Talde hortetatik ia jokalaririk gehienak pasatu ziren "ekipo haundira". Hauek dira erretratuan agertzen direnak:

Zutik, ezkerretik eskumara: Ramon Arozena (t), Bittor Arrieta, Pedro Gallastegi (t), Alberto Loiola (t), Jose Azkoitia eta Jose Antonio Goikoetxea.

Behean: Jesus M. Izagirre, Bizente Zubiaurre, Iñaki Gorostiza, Manolo Gil eta Luis M. Eguren (t).

Lanbroa

Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

HERRI-GAİN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
'a 943 74 30 40 ELGOIBAR

Bi giFeircksbear Tcilitnuzuwauk Wtfib''ko



ASTEGUNETAN
Goian goizeko 8:00etatik aurrera



Kafeak, pintxoak eta opilak.



SAN FRANTZISKO, 25 • TEL. 943 744 265



ASTEGUNETAN
Behean arratsaldeko 17:00etatik aurrera



Almera
Tino



ALMERA TINO. GERTUKOEK BANATZEN ERAKUTSI DIZUTE. ORAIN ESKATU EGITEN DIZUTE.

ZURETZAT GAUZAK ALDATU EGIN D'IRA. DAGOENEO EZ ZAUDE BAKARRIK. ERANTZUNKIZUNAK DITUZU BAINA HORREGATIK EZ DIOZU MOTOR HANDI BAT DUEN AUTO BATI UKO EGINGO. GERTUKOENTZAT ERE AUTO HANDI BAT BEHAR DU IZAN. ZURE FAMILIAKO BAKOITZA GARRANTZITSUA SENTIARAZIKO DUEN AUTO BAT. MARRAZTEKO EDO 1RAKURTZEKO BALIO DUTEN MAHAI TOLESKORRAK, PANPINAK, MAPAK, LIBURUAK, POLTSAK EDOTA

JOKUAK GORDEZTEKO MILA TXOKO, MUNDU ZABALA MIRESTEN ERAKUTSIKO DIZKIGUTEN LEHIO HANDIAK. ZUK EMATEN DIEZUN SEGURITASUNA EMATEN DUEN AUTOA. ZEUK EMATEN DIEZUN GARANTIA BERDINAREKIN. BERAIEK NAHI DUZUN EROSOTASUNA LORTZEN LAGUNTZEN DUEN AUTOA...TRORRELA KOA DA NISSAN ALMERA TINO. GEHIEN MAITE DITUZUNEKIN ETA GEHIEN MAITE ZAITUZTENEKIN BIZITZEKO ETA GOZATZEKO AUTOA.

ALMERA TINO	Prezioa
1.8 COMFORT	2.634.000 pta.
Di COMFORT	2.834.000 pta.
4.Q AMBIENCE Automatikoa CVT	3.204.000 pta.



Almera
gama
zabala...



SEE THE CHANGE

5 URTE KO
BERMEA
KM MUGARIK GPBE

ALMERA 3/5 ate 1.970.000 pezetatik aurrera*
ALMERA Sedan 2.092.000 pezetatik aurrera*

*Jendearentzako prezio gomendatua (BEZ, matrikulazio-zerga, garraioa eta Nissan asistancia bame eta 5 urteko bermea kilometro mugarik gabe), bame. Penintsularaka eta Baleareetamko baliagarria.



ALDIBI AUTOAK, S.A.
ELGOIBAR-ARRASATE-BERGARA
Olaso, 23 - 20870 ELGOIBAR - Tel.: 943 74 20 37
aldibi@elgoibar.com

ropil

15thW-1
Nortekor